

GEROA ERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

41. zenbakia

94ko otsailak 11



Agintariak bisitaldian

MUNDU BAT GOIERRIN: GOIERRITARRA BERRITUA HAMABOSTERO ORAIN

Zure "etxea" lau haizeetara "anuntziatu" aldizkari "berrian"

Euskaraz nahiz erdaraz, Goierri gehien zabaltzen den aldizkaria, debaldeko GOIERRITARRA duzu (39 zenbaki dagoeneko), eta 1994ko urte berritatik hasita, hilabetekari izateari utzi eta hamabostekari bihurtu dugula adierazteko zuzentzen dizugu ohar hau.

Gure asmoa hurrengo besterik ez da: eskualdean gero eta informazio gehiago sortzen direnez (herri eta eskualde mailakoak), guzti horiei kabida ematea. Guzti hau burutzeko ezinbestekoa izango zaigu akordio eta hitzarmen batetara iristea Goierriko Udalekin.

Argitaratuko dugun zenbaki bakoitzaren tirada igotzea espero dugu 5.000 aletara, geure harpidedun berrien eskaera asetzekotan. 15.000 irakurle eukitzea espero dugu, Goierriko euskaldungoaren gehiengoa.

GOIERRITARRAren Aldi Berriak suposatuko duen zama ekonomikoari aurre egitearren (nahiz Udalen diru-laguntza igo, igoko den), publizitate eskaintza zabalago bat aurkezten dizuegu, iragarkien kostua jeitsi eta beren efektibotasuna eta "afektibotasuna" igo egingo dela adieraziz.

Oraingoz, inongo aldizkarik (eta egunkari zenbaitek) ez duten zabalpena du Goierri GOIERRITARRAK, irakurlerik onena (3.000 harpidedun, 9.000 irakurletik gora, kultur-maila batekoak). Zure enpresa, denda edo industria goratzez gerotan, hauxe duzu propagandarik apartena. Eta zer izango da laister...!

PUBLIZITATE TARIFA BERRIAK

--Prezio hauek zenbaki baterako balio dute:

Modulo 1	3.000 pzta.
2 modulo	6.000 pzta.
3 modulo	9.000 pzta.
4 modulo	12.000 pzta.
6 modulo	18.000 pzta.
Orri erdia	25.000 pzta.
Orri osoa	50.000 pzta.

--10 zenbaki edo gehiagotan publizitatea egiten dutenentzat ondorengo deskontua daukagu:

Modulo 1	2.500 pzta.
2 modulo	5.000 pzta.
3 modulo	7.500 pzta.
4 modulo	10.000 pzta.
6 modulo	14.000 pzta.
Orri erdia	22.500 pzta.
Orri osoa	45.000 pzta.

- ✓ Publizitate kobraketa banketxe bidez egiten dugunez, zure kontu korrontetik kargatuko genizuke, emango bazenigu.
- ✓ Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita gurea.
- ✓ GOIERRITARRA Argitaratzen du: "Goierritarrak" K.E.

✓ GOIERRITARRA Aldizkaria Dorre Etxea 1.;124 posta kutxa. Ordizia.

Tfnoa.: 889612. Faxe: 161463 ("Goierritarrarentzat" adieraziz).

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

41. zenbakia. 94.eko Otsailak 11. Debaldeko alea. Tirada: 3.500 ale. 3.000 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak"
Kultur Elkartea.

Dorre-etxea, 1. (Correos-gainean).

Tfna: 889612. Faxe: 161463.

124 posta kutxa, Ordizia.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea: Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea: Dionisio Amundarain, Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz.

Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna, Jesus M. Munduate, Amaia Balerdi eta Estitu Imaz.

Kronista eta kolaboratzaileak: Marijoxe Madariaga, Joxe Begiristain, Rufino Iraola, Gabino Murua, Argider Mujika, Iñaki Amundarain, Andoni Alustiza, Gurutze Aldabe, Xabier Glez. Ezama, Joseba Telleria, Jexux Lete eta Antton Idiakez.

Azala eta zenbait argazki: Dioni (Foto-Sistema)

Fotokonposaketa eta maketazioa:



GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



22. elkarrizketa, Aranalde eta Orixeren aztarnak Araman

NON ZER

4. eskutitzak

5. agenda: *intereseko telefonoak, gastronomia, bota bertsoa, Ordiziako azken feria, Ordizia eta Beasaingo kultur egitarauak, debaldeko iragarkiak, egutegiak...*

8. iritzia txandaka: *"Ibai-ertz"en bertso-mundua*

9. bestee esana, inkesta, Zer egingo duzu ihauterietan?

10. Goierriko berri: *Agintarien bixitaldiak*

12. elkarrizketa, Elozegi ardozalea: *"Jendeak ardo ho-beak edatera jo du"*

14.-19. herriz herri: *Zaldibia, Zerain, Segura, Gabiria, Ormaiztegi, Lazkao, Beasain, Ataun eta Legorreta*

20. kirola

21. hemen eta orain: *arrastoan: Mari Karmen Odriozola; liburutegia*

23. goierritar klasikoak: *Lardizabal zaldibiarra*

GOIERRITARRA etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA..... TLF.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jasotzen du

GOIERRITARRAK
GOIERRIKO
UDALEN
LAGUNTZA DU

Baserritar adiskide

Aspalditxotik zenbait baserritar eta nekazal teknikari kezkaturik gabiltza nekazaritza hartzen ari den bidearekin (Europar hartu duena). Baserritarrari gero eta gehiago produzitzea eskatzen zaigu eta ondoren prezioak jeisten dizkigute, azkenean lehen baino gutxiago irabazteko eta bitartean abonu kimiko eta botika mordoxka bat erabili behar izan ditugu, produkzioa gehitu nahi horretan (batipat barazgintza eta fruitagintza).

Bide hortatik janariaren kalitatea jeisten da, lurra gaixotzen dugu eta ez dugu irabazirik ateratzen. Baserritarak beti zaindu izan du lurra eta aberea bere burua baino hobeto, ondo bait zekien horrek ziurtatzen diola oraina eta etorkizuna; gaur berriz, lurra eta abereak esplotatzera behartu nahi gaituzte (baserriari *esplotacion*, ustategia deitzen diote), eta ez dugu hori bide egokia ikusten. Bestalde, kaleko jende bat, oraindik asko ez bada ere, konturatzen ari da janariaren kalitate galtzeaz eta ingurugiroaren hondatzeaz eta prest dago, zertxobait gehiago ordainduta ere, kalitatezko produktuak erosteko.

Arazo honi bide bat iriki nahian elkarre bat sortu dugu kimikarik gabeko

nekazaritzaren alde (nekazaritza biologikoaren alde) gaudenok bilduz, batipat baserritarrok. Ez dugu bakar batzuk produzitu eta kontsumitu dezaketen nekazaritza "garbi" bat sortu nahi, produzitzaileen artean konpetentzia gehitu eta kontsumitzaileen artean desberdintasunak eragingo dituen. Gure nahia kimikarik gabe produzitu nahiko lukeenarentzat informazioa eta behar diren laguntzak bideratzea litzateke, nekazaritzak betitik zaindu duena bultzatuz: lurraren emankortasuna, ingurugiroaren oreka eta janariaren benetako kalitatea, baserritarra bere lanetik bizi ahal izateko moduan eta kontsumitzaileari janari orekatu eta osasungarriak eskeiniz.

Asmo hauekin bat bazatoz, animatu zaitez elkar-lanerako, kide izan zaitezke, Ordiziako Nekazal Bulegoan apuntatuz.

 Biolur Gipuzkoa



Euskara ikasteko eskubidea

Euskarak bizi duen egoera oinarritzat harturik, AEKren lana, eguneroko klaseak emateaz gain, euskara gizarteratzea da, hizkuntza suspertuko duen ekintzak gauzatuz herri zein nazio mailan. E.J.-ko Kultura Sailak ordea, euskararen aldeko lan hau errekonozitu eta diruz lagundu beharrean, berau kolokan jarri eta larriki oztopatu izan du. Oraingoan 17.780 euskara ikasle ari diren 80 bat euskaltegi aurrez zuten dirulaguntza urria kendu die.

Hau horrela, AEKk hiritar orok euskara ikasteko duen eskubidea onar dezaten eta euskaltegi guztiak errekonozitu eta diruz lagun ditzaten eskatuz, firma bilketa hasi du. Kanpaina honi, martxoaren Sean "Euskara ikastea, denon eskubidea" lemapean Bilbon burutuko den manifestazioarekin emango zaio amaiera. Goierriko Goiztiri AEKk goierritar guztioi ekimen honen alde firma dezazuen eskatzen dizue. Sindura orriak lantegi, ikastetxe, elkarte, taberna, euskaltegi e.a.-etan aurki ditzakezue. Eta bide batez, Bilboko manifestaziorako gonbitea ere egiten dizuegu. Autobusak izango dira Goierri-tik. Euskara da jokoan dagoena.

 Goierriko Goiztiri AEK

T	▲	A
M	PA	A
Y	PEL	O

- ☐ OFIZINARAKO MATERIALA
- ☐ ESKOLARAKO MATERIALA
- ☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK

Amerika, 2
Tfnoa: 88 89 80
ORDIZIA

TXERTAKADI SAGARDOTEGIA

- Norberak haragia eman ezkerore ere prestatuko zaio
- Eguerdietan ere emango da aurrez abixatu ezkerore, 884798 tfnora Bixita gaitzazu!

Urtesabel Auzoa

ZALDIBIA

☎ 16 13 59

BANDRES GESTORIA

UAP Aseguruak

Goierri Kalea

☎ 88 12 58

ORDIZIA

Agenda

Intereseko Telefonoak

LAZKAO

Udaletxea	886408
Ertzantza	887350
Anbulategia	888755/882632
Gurutze Gorria	272222
D.Y.A.	464622
Larrialdiak	880967
Suhiltzaileak	881362
Maizpide Euskaltegia	889231
A.E.K. Euskaltegia	889340
S. Prudentzio Ikastetxea	882630
S. Benito Ikastola	880800
Parrokia	880229
Sarasola Autobusak	880259
RENFE	880853
Polikiroldegia	160934
Goiherriko Euskal Eskola	160282

Errezeta



Fco. Javier Villanueva
nuevak emana.
Kuko jatetxea,
Ormaiztegi

GIBELA VENEZIAR ERARA

Osagaiak 2 lagunentzako: 340 gr. gibel, 3 tipula, 3 baratxuri buru, olio, gatza eta ardo txuria

Lehenik tipula "juliana" eran moztu eta kazuela batean sartuko dugu olio eta baratxuriekin batera lasaitasunez egin dadin. Bestalde, gibela behatz txikiaren

tamainu berbereko puska-tan moztu, gatza bota eta tipula egin dadin itxaron. Tipula egin denean, ardo txuria bota, alkohol gustoa joan dakion itxaron eta orduan gibelari zartagi oso bero batean pasadato bat eman; ondoren tipula ondo egin nahastu. Mahaira ateratzeko prest egongo da.

Bota bertsoa



Ikerne Urrestarazu
Gaia: Ihauteriak
Doinua: "Txoriak
eta txoriburuak"

Ihauteriak egun hauetan hortxe berehala datoz denok pixkabat alaitu eta umorea jarri asmoz. Lagunak bildu ta Tolosara goaz ilusio osoz mozorrotuaz txerri edo behi eta beste batzuk astoz

Parrandarako ezin hobeak dira jai hauek benetan. Aprobetxatu behar ditugu bakoitzak gustoko eran. Giro ederra sortuaz denok Tolosako kaleetan jantzi zaharrak atera eta ondo pasa jai hauetan.

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN



DOMINGO UNANUE PLAZA

Tf.: 88 93 25
20240 ORDIZIA

KUKO Jatetxea

"Otsaila haragizalea"

—Haragietan aukera handia
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)

Berjaldegi Plaza, z/g ☎ 88 28 93
ORMAIZTEGI

Sagardotegia



aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

Erakusketa
Sukaldeko tresnak



Mariartz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

Debaldeko iragarkiak

Lana

□ Bi neska prestu asteburutan garbiketa-umezaintza lanetarako. Dei 885772ra.

Salerosketak

□ Ordenagailua salgai, oso egoera onean: Schneider Euro XT, 20 MB disko gorrora, 2 disketerak, sprinter 180 inpresora, zenbait programa eta materiale, 125.000 pzta. Tfnoa.: 889640.

□ Inprimagailu laserren toner ontzi hutsak ez itzazu bota agortu ondoren. Ingu-rugiroa zain ezazu. Dei 651235 tfnora eta berehala jasoko dizkizugu.

□ Hauxe duzu aparteko aukera erabili gabeko Surf-taula zoragarri bat oso prezio onean zureganatzeko. Deitu berehala 885130ra. Amaia.

Etxebizitzak

□ Neska edo mutil bat behar da pisua konpartitzeko Ordizian. Dei GOIERRITARRA: 889612.



Egutegiak



Kultur Ekintzak

Ordizia: otsailaren 18 arte jardunean, Pello Etxeberria "Etxekar" en oleoak: "Emakumeak". **24tik martxoak 11** arte, Enrique Velazquezen oleo eta aerografiak, Kultur Etxean.



Beasain: Otsailak 18: Kultur Etxean, martxoak 8 bitartean, Nori Ushijimaren erakusketa, lanegunetan 18,30etatik 21etara eta jaiegunetan 12etatik 14etara eta 18,30etatik 21etara. Javi Herreroren erakusketa en amaiera Aterpe tabernan. **19:** "Asterix galiarra" filmaren proiektzioa Mu-

rumendi ikastetxean 16,30etan. Aterpe tabernan martxoak 11 bitartean Alberto Ramirezen erakusketa. **20:** "Excalibur" filma La Salle-San Josen, 16,30etan. **22:** Kitarra kontzertua. **24:** Udal Liburutegian irakurketa suspertzeko haurrentzako ekintza, Hika taldeak "Marisa Adagorria" ipuia kontatuko du 18,00etan. **26:** "Kalabaza tripontzia" Murrumendin 16,30etan. **27:** "Astakiloen abenturak eta kalenturak" filma La Sallen 16,30etan.

Ordizia/Beasaingo Goardiazko botikak:

Otsailak 16: Cuesta; **17:** Arriola; **18:** Urbizu; **19-20:** Cuesta; **21:** Atorrasagasti; **22:** Azpilikueta; **23:** Jauregi; **24:** Laurnaga; **25:** Cuesta; **26-27:** Laurnaga; **28:** Arriola.

Ordiziako Herri Antzokia:

Otsailak, 11: "Las locas, locas aventuras de Robin Hood" (10,15); **12:** "Fuga Mortal" (7,30-10,15); **13:** "Las locas, locas aventuras de Robin Hood" (4,45-7,30-10,15); **14:** "Las locas, locas aventuras de Robin Hood" (7,30); **18:** "La familia Adams" (10,15); **19:** "Secuestrada" (7,30-10,15); **20:** "Asterix y el Golpe de Menhir" (4,45), "La Familia Adams" (7,30-10,15); **21:** "La Familia Adams" (7,30).

Ordiziako Mendizaleak: otsailak 20: Amezketartubi; **27:** Lizarrausti-Larre-Larraitz.

Pausogaizto: Oñatiko Arrikutz kobara.

Beasaingo Aitzgorri: otsailak 13, Uzturre; **20:** Beriain- Urbizu- Beasain; **27:** Beasain-Sta. Marina-Beasain.

Idiazabal K.E.: otsailak 19-20: Candanchu (eski-saioa, 7,00 eta 15,00etan).



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Tfnoa: 885500

ORDIZIA

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



OLABERRIA

☎ 88 51 50



Ordiziako azoka

Nobedadeak: tipuliña, 60 pza.-xorta; Tuterako alkatxofa, 390 pza.-dozena. **Bertako produktuak.** **Abereak:** Arku-ma, 235 buru, 375-400 pza.-k; antxuma, 400; untxia, 220. **Gaztak** (kiloka): beheiarena, 600-1.000; ardiarena, 1.300-1.600; nahasia, 950-1.200. **Bertako arraultz, landare eta barazkietan** apenas eman da aldaketarik aurreko asteetatik. **Bertako barazkiak eta beste** (b: bakoitza, k: kilo, x: xorta, d: dozena): atxikoria, 50- 75 x; aza: 60-100 b; azalora, 75-200 b; azelga, 50-75 x; babarruna, 700-1.000 k; baratxuria, 75-100 x; baba txikia, 150-250 k; borraja, 50-75 x; eskarola, 50-120 b; espinaka, 50-75 x; intxaurra, 400 k; kalabaza, 125-200 k; kiwia, 150- 250 k; letxua, 50-80 b; patata, 40-50; porrua, 75-200 x; sagarra, 100-300 k; urrak, 300-325 k; zainhoria, 50-75 x. **Kanpoko produktuak:** anana, 250 k; banana, 250-290; kiwia, 150-200; laranja, 75-130; limoia, 150; mandarina, 150-250; Sagarra, 100-150; udara, 175-225.

Gurutze Aldabe

Egonaldiak Familia Euskaldunetan

Euskara-ikasleak etxeetan hartzeko plangintzan parte hartzeko interesik izan dezaten familia euskaldunentzako laguntzak emateko modua arautzen duen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aginduen kopia Goierriko Udaletxe guztietan dago honezgero. Deialdi honen zehaztasunak, inskripzio-fitxak eta gainontzeko dokumentazioa udal bulego desberdinetan eskura daitezke; dokumentazioaren aurkezpen epea 94ko martxoaren 18an bukatzen da.

AEKren Lorazaintza Ikastaroa

Goiztiri AEK Euskaltegiak antolaturik eta Beasaingo Udaleko Euskara Batzordearen laguntzaz burutuko da ikastaro hau. 30 ordutako iraupenekoa, hilak 15 hasi eta Aste Santu au-

Deialdiak

rretik amaitzekoa, astean 3 egun eta egunean 2 ordutakoa izango da. Klase teoriko eta praktikoak. Gehienez 30 laguneko taldea izango da eta pertsonako 2.000 pza.ko kuota. Izena emateko dei Goiztiri AEKra: 889340.


Herri Euskaldunen I. Jardunaldiak

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (EU-MA) iardunaldi batzuk antolatu ditu otsailak 24tik 27ra bitartean bere oraina eta geroa eztabaidatzeko. 5 urte dira elkarteak sortu zela eta egun 20tik gora udal biltzen ditu, E.H.an tipologia bereko 110 herri ditugu, guztien artean 100.000 euskaldun oso. Jardunaldien Helburuen artean, udalerri euskaldunen mugimenduaren inguruko azterketa hizkuntzaren normalkuntza- prozesuan eta udalerri euskaldunei bere

helburuen aplikazioan sortzen zaizkien arazo praktikoan azterketa.

Lazkao-Txikiren pasadizo eta txisteen bilketa.

Ezagutzen al duzu Lazkao-Txikiri gertatutako edota berak inoiz kontatutako pasadizo, gertaera, ixtorio edo txisterik? Berari zuzenean entzunda, beste norbaitek kontatuta edo nonbait, inoiz irakurritakorik ezagutzen baduzu, idatzi eta bidal ezazu, apirilaren 20a baino lehen, helbide honetara: Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkarte, Elosegi 16, 1. ezker. 20210 LAZKAO. Irakurketa errazteko, lanak makinaz idatzita bidaltzea eskertuko dute. Lazkao-Txikik egin-dako guztia merezi duela eta Goierriko Euskal Eskolak material dotore bat jaso, txukundu eta horrekin lanen bat prestatzeko asmoa du.



gaur express
mezulariak

- Hiri barruko zerbitzuak
- Nazionala 10 ordu
- Nazioarteko zerbitzuak
- 3.500 kg arteko kamioi zerbitzuak

Beasain: 88 89 38 Tolosa: 65 19 96 Donostia: 47 24 38



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



KATTALIN

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA
Sagardoa txotxetik

Antzizar Auzoa, 4 - "Biona" Etxea
(Polikiroldegi ondoan) ☎ 889252 BEASAIN



Jesus Lete
"Ibai-Ertz"

***Jaso bitza
Bertsolari
Elkarteak
nere eskerrak,
jakin duelako
omentzen
afizioz asi eta
orain
xaartutako
bertso-
jartzalleak***

Sarritan esan det gure gurasoek taberna zute-neko etxe artan jaio nintzala, 21.ean. Orrela, orain 72 urte dauzkat. Gure etxe ortan inor ez zan bertso zale. Zergatik? Ba, seguraski, bertako bezeroek, "treintacuarentan" jartzen zirenean, bertsotan asten zirelako eta ori ez delako bertsolari izatea. Gogoan det nola legorretar bat, Ordiziako peritik etxera-koan, gure taberna ortan sartzen zan eta pake onik ez zuela izaten bertsoetan asi arte. Amaika litro erdi ardo (naiz onek lau txakur aundi balio izan) galdu izan zituen "beintzat" itza erabili gabe, bertsorik ezetz moldatu eta beti itz orretan erortzen zalarik, apustua galdu egiten zuen.

Benetako bertsolariak, Zepai, Txapeleta Artzanbarri ain zuzen, 36.ean Itsasondoko Batzokian ezagutu nituen. 14 urte neuzkan eta orduan jabetu nintzan errima zer zan, baño neurria nola erabili zutenik ez. Biharamonean asi nintzan kantari, eta egia esan, bertso "ankaluzek" eta "ankamotzak" irten arren ez nintzan lotsatzen. Kirkilla bezela, beti kantari. Gero gerra etorri zan eta bertsolariak mututu arazi zituen diktadurak. Gauzak baretzen joan ziren eta Legorretako "Jainkonea" tabernan entzun nion Basarriri. Gero, Basarri eta Uztapide zana bertsotan nun, beti ni an ze ikasiko. Alare, nonbait, "lezioa" ez nuen ondo ikasi, eta orain 46 urte inguru, juxtu ez naiz gogoratzen, bertso idatziekin artu nuen lendabiziko "belarondokoa". Inozentzio Munitak (G.B.), apaiz egin zane-ko urrezko eztaiak ospatu zituen. Oso egun ederra izan zan eta ni ere Araman nintzan oso adiskide on giñan eta. Buru-

Nere bertso mundua

ratu zitzaidan egun artako elizkizuna e.a. bertsoetan jartzeta eta "Arantzazu" errebitara bidaltzea an argitaratzeko. Denbora bat igaro ondoren, an datoz bueltan nere bertsoak, esanez gaia eta bertsoetan niona oso politak zirela, bañan neurrian ez zeudela ondo. Bertsoak gordeta dauzkat, bañan karta ez, lotsaz autsi egin nuen eta.

Gizonak sekula ez du etsi bear eta, 61.ean Xenpelar Sarian parte artu nuen. Bertsoak irudimenezkoak ziran, neska mutillen artekoak, Pepitari Jarriak. Ala bazan ez bazan, 1.go saria eman zidaten eta ez nintzan asarre. Txirrita zana-ren omenaldian, Ernanin jaso nuen 62.ean. Emen gertatu zitzaidan ortik onerako bitxikeria. Bertsolariak bukatu zuten beren saioa eta Alfontso Irigoienek eman zuen sarituen zerrenda: 1.goa ni nintzela; urbildu nintzan beregana eta karta sobre bat eman zidan "Bar España, Emani" jartzen zuena, eta esan zidan zorro orren barruan zegoela txartel-txo bat nere saria 2.000 pezta zala esaten zuena eta, ondorengo egun batean giro postalez bidaliko zidatela. Ala egin zuten. Ortaz gañera, sobrea gora jaso eta jendaurrean ondo astintzeko. Jendea txaloka eta ni gero kobratzekotan. Orain, 1.go saria 2.000 pezta zala esatean, jendeak par egingo du, bañan ordurako auntsaren gauerdiko eztula ainbat bazan. Geroztik, 60.

amarkada osoan zear, 2. sariak, 3.ak, 4.ak eta beste bertso jartzalleekin berdin egindako urteak izan ditut. Kale ederrak ere bai. Ustez bertso onak jarri eta epaileentzat balio gabe-koak izan.

Goierriko erri asko eta asko paseak ditut batzutan aurkezle eta bestetan epailari bezela. Naparroako Bertsolari Txapelketan 5-6 urtez epailari izana naiz. Puntuaziorako tablak neronek eramaten nituen eta zenbait gai, lau oñak emanda bertso osatzeko, puntua jarrita bertsoa kantatzeko eta ofiziotarako ere eramane izan nituen. "Lizume", Mariano Izeta eta "Izazpi" an izaten ziran. Gaurko bertsolariak juzgatzeko ez naiz kapaz. Asko dakite eta entzulegoak ere bai. Gure garai aietan jendeak ez zuen marmarrik ateratzen orde, pentsatuz epailariet or-tarako zeudek eta kito.

Sekula santan nere burutik etzan pasa izan omendua izan bear nuenik, bañan ori ere egin didate beste 9 bertso-jartzallerekin batera. E.H.-ko Bertsolari Elkar-teak erabaki zuen, bertsoak idazten genitueni, leenbizi bakoitzaren jaioterrian egin bear zitzaiola eta gero, deni, Donostian. Nere errikoa, ilbeltzaren 14an Arbel-Aitz soziedadean ospatu zan Udalak antolatuta. Leendabizi afari on bat, Goierriko bertsolari eta erriko trikitixak alaitua. Ondoren sari ederrik jaso nuen. Milla esker denei. Donostikoak, nere partetik, komentariotik egin bearrik ez dauka, irrati, telebista eta egunkarietan ederki egurastua izan baita. Bertsolari Elkar-teak jaso bitza nere eskerrik beroenak, afizioz asi eta orrela omentzen jakin duelako garai batean sasoiko eta orain xaartu-geran bertsojartzalleak.

Besteek esana

"Gure odolkiaren arrakasta, nire amak azaroan Garingo muinoan, Mandiolako bidean, jasotzen duen origanoan egon daiteke. Geroz eta goragokoa jaso, orduan eta finagoa da loraginoa. Askozez fama-tuagoa naiz egiten dudun txorixoagatik odolkiarengatik baino. Banekien iazkoan finalista geratu nintzela eta aurtengoan hobetu nahi nuen. Bitxia da, Idiazabalgo harategian mondeju gehiago saltzen dut odolkia baino. Jendearen ohituragatik da. Nire odolkiak ez du haizerik sortzen eta hori da trukurik onena".

Joxe Mujika "Beasaingo Odolkia" lehiaketaren irabazleak, 94- I-30, "D.V."

Inkesta

Zer egingo duzu Ihauterietan?



Naiara Telleria
Ordiziarra, 16 urte
Ikaslea

Urtero bezala Tolosara joango naiz, azterketetatik piskabat desaogatzeko. Baina, Tolosaz gain ikastolarekin Lantzen eta Goizuetan ere izanda nago. Beste urte batzuetan mozturrotu izan naizen arren, indioz edo Peter-panez, aurtan ez dut ezer pentsatu.



Axier Asuaga
Ordiziarra, 16 urte
Ikaslea

Aurtengo Ihauterietan, gaizki portatzeagatik zigortuta nago. Amari erantzuteagatik gertatu zait hau. Hala ere espero dut Tolosara joan ahal izatea, horretarako pelota piskabat egin behar. Ihauterietara joatez-kero, ziurrenik, toreroz mozturrotuko naiz.



Esther Rey
Lazkaotarra, 16 urte
Langabetua

Tolosara joango naiz, bertako giroa oso gustoko bait dut. Aurretik Donostian ere izana naiz, baina ez zitzaidan asko gustatu. Ez dut uste mozturrotuko naizenik, ez dut pentsatu, baino ateratzen bada... Mozturroak kuadrilan pentsatzen ditugu, bakeroz, zaborrez eta barrez jantzi izan gara.

albisu
KRISTALDEGIA

Ordiziako Industrialdea - Pabellón, 40
Tel. y Fax: 88 71 58
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITUURRIOZ 11
BEASAIN



MUJIKA



BEASAIN

☎ 88 74 00



NAUTIKO Jatetxea

eta

IZASKUN Pentsio-Ostatua

ITSASONDO

Tfona: 88 00 12

Ba al dakizu...?

Bixiten hilea izan genuen aurrekoa. Erdialdera bisitatu gintuen Buesa kontseilariak eta bukaera aldera Jose Antonio Ardanza EAEko lehen-dakariak. Buesa, Goierri Lanbide Eskolan egin berri diren berrikuntzak ikustera etorri zen (200 milioiko kostua izan dute eta bere Kontseilaritzak %75a jarri du). Jesus Mari Gaztañaga eta Inazio Eñstensoro jaunek Eskolaren etorkizunagatik apostua egiten jarrai dezala eskatu zioten. Goierriko Herrien Ekintza Elkargoko zuzendariak Goierriko Injinaritza Eskola baten beharra planteatu zion eta Kontseilariak Eskolaren eguneratzeagatik zoriondu zituen.

Ardanza Lehendakariak, berri, lehen bixita ofiziala zuen Goierri. Lehenik Olaberriako Aristrainen izan zen, bertako zuzendaritzarekin hizketan, Eli Galdos Diputatu Nagusiarekin batera. Gero Ordizian dagoen GHERa abiatu zen Udal-arduradunekin egotera. Goierriko Plan Estrategikoa, Goierri L.E.a, Goieki, e.a. izan zituzten mintzagai. Fundazioa Goierri ezagutzeko foro garrantzitsua izan daitekeela azpimarratu zuen. Krisia aipatu zitzaion eta Administrazioa arazo guztien soluziobide ere ez dela esan eta indarrak biltzea eta austeritatea proposatu zituen Ardanzak. Lehendakaria baikor agertu zen Goierri bailadak dituen baliabideak errepasatuta. Ezin bixitatu izan zituen N-laren obrak eta Arriarango presakoak, agenda betea zuenez. Azkenik CAFen izan zen.

□Maltzaga-Urbina autopista eraikitzeko mogimendu gehiago dabil Deba



Beasain-Ordizia arteko tunelaren konponketa egoera

Argazkia: Dioni

bailadan, Goierri N-1a eta Etxegarate promozionatzeko baino.

□**ATAUN.** Joxemiel Barandiaran Murkondo K.E.-ak 94ko egutegiak atera ditu. Herriko taberna, denda eta bestelakoetan eskura daitezke 20 duroko laguntzaren truke. Aurtengorako egitaraua ere prestatzen ari dira, aida-nez.

□**ATAUNGO** Aiztondoko bidearen arazoa konponbidean da. Udalbatzak ahobatez onartu zuen Aiztondo base-rrirako bidearen proiektua.

□**BEASAIN.** Ezkiaga-Porteria auzoan eginiko hobekuntzak gutxitxotzat jo ditu bere agerkaritxoan bertako bizilagunen elkarteak. Pilaketa kontutan gauzak zerbait hobetu direna onartzen dute, baina beste 55 etxebizi-

tza bi bloketan egiteko asmoak aurrera doazela diote, halere.

□**93-94** ikasturtean Beasaingo Batxilergo Institutuak 25 urte betetzen ditu. Milaka goierritar izango dira bertatik pasa direnak, urterik urte. Beti ere, urte guztiotan dagokien arloan inguruaren beharrei erantzunik egokiena ematen saiatu direla diote. Gertakizun hau dela eta ikasturtean zehar hainbat ekitaldi egiteko asmoa dute. Hauen artean ikastetxeari izena jartzea bururatu zaie. Eskola Kontseiluak jadanik hartua du Txindoki izena jartzeko erabakia. Era berean, izen berria aitzakitzat hartuz ikastetxearen ikur izango den logotipoa aukeratzeko lehiaketa burutu da. Partaidetza handia izan du eta epaimahaiak Ander Sanz-ena saritzea erabaki du.



ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g
Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA

ALTZAGARATE
JATETXEA

■Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaik, e.a. ospatzeko
■Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Tfona

ALTZAGA

SIBONEY

Estetika guztia
Ana Kristina Olano

Senpere Zentru Komertziala
88 15 50 Tfona. BEASAIN



□Nestor Basterretxeak "Urbide" eskultura multzo erraldoia tailatu du Arriarango urtegiaren hormetan. Eskultoreak egin duen obrarik erraldoiena eta akaso ikusgarriena da hau. Urtegiaren horma sendoari dotorezia itsasten dio eskulturak. Arriarango presaren erdiko ardatzaren bi alboetan daude eskulturak eta erdiko tarteak konutuan hartuta ia 60 metro ditu aldenik alde. Bakoitzak 23 metro ditu altueran eta 7-8 lodieran. Baina ez da arte-obra hutsa, erabilgarria ere izango baita, gelak egokitu dira barruan. Goialdeko zatian urtegiaren inspekzio gela eta museoa ere egongo dira. Bi urte eraman dizkion obraren kostua 77 milioi pezetakoa izan da.

□Igartzako jauregia, bere errota eta Dolarea baserria udalerriaren ondasun izatera pasako omen dira. Dena den, berregokitzen ez badituzte erruina egoerara iritsi daiteke horietakoren bat.

□1992eko Gabonetan argitaratu behar zen lehen zenbakia, baina akordioan faltagatik ezin izan du argitaratu bertako Udalak bere aldizkaria. Aldizkaria lau-hilabetekaria izan behar zuen

proiektuaren arabera, baina alderdien arteko hainbat eta hainbat ezadostasun medio, azkenean behintzat beste garai hobeagotarako utzi da.

□LAKAZO. Arruabarrenako langileak enpresaren plana onartu zutela jartzea pasatzen auzun aurtegiaren alean. Enpresa Zaragozara aldatzeko planak 43 botu izan zituen aldeko, 2 aurkako eta bat zurian. Arruabarrenaren erabakia oso kritikatu izan zen hasieran langileen partetik, baina azkenean onartua. 19 langile Lazkaon geratuko dira, 27 Zaragozara joango dira eta 4 lantegitik kanpo geratu dira. Akordioa zenbaiten bitartekaritzari esker lortu da. CCOO-ko balorazio positiboa egin zuten.

□OLABERRIA. Olaberriako Udala gestioak egiten ari da herri kasakoan babes ofizialeko etxebizitzak egiterik balego ere. 90 m²etako bi bizitzakiko etxeetan, 30 bat m²ko garaieak eukiko lituzkeenetan pentsatzen ari dira. Laister batean egingo zaie bilerarako deialdia interesaturik leudekeenei.

□"Hiper Olaberria"ren inguruan hots txarrak dabilta. Zorraz zorren gainean dituela, lan-baldintza eskasak dituela, Pryca erosi(ko) duela, kredituak moztu zaizkiela... Orain dela urte bete genion denborak esango zuela zertan geratzen zen. Erreportai bat eskeini zien GOIERRITARRAK, publizitatea jarri

ere bai. Propaganda egin bai, baina oraindik ez dugu jaso zor digutena...

ere bai. Propaganda egin bai, baina oraindik ez dugu jaso zor digutena...

□ORDIZIA. Hurrengo hamabostaldian argitaratuko dugun Lazkaoko alkate den Inazio Estensororen izandako elkarrizketan honek dioenez, Beasain, Lazkao eta Ordiziako udalek Lazkaibargo pasonibelari aurrez ikusitako soluzioa eman diezaiozela eskatzen dute. Hau dela eta Renfe-ko buruekin hitz egin dute eta laister Estatuko Garraio Mnisteritzarekin egotekotan dira, behingoz pasadizo berria egin eta puntu beltz hori ken dezaten. Iaz gertaturiko istripu larriak eragin zituen erabaki hau hartzera.

□"Goieki", Goierriko Garapenerako erakundearen Administrazio Kontseiluak logotipo berria aukeratu du dagoeneko bere agentziarentzat. Sortu berria den Goieki bailadako plan estrategikoa eta Goierriko onurako diren ekintzak bultzatzeko dago.

□Geroz eta indar gehiago hartzen ari da, aidanez, Ordiziako rugby-zelaia San Juan auzoan egiteko aukera. Udaletxeak Aristrainen txaletaren pareko lursailean egin berri duen ikerketa topografikoak aukera honen aldeko tanto batzuk eman ditu. Soroak Udaleri, Aristrain eta Renferenak izan behar dute. Gipuzkoako Diputazioko Kirol saila obra finantziatzeko prest omen legoke, 28 bat milioekin, hain zuzen. Udaletxeko Bulego Teknikoari dago-kio orain kostuen inguraketa egitea.

□ORMAIZTEGI. Udaletxe eta Gaztetxearen artean akordiora iritsiak dira honez gero. Gaztetxearen itxierak sortutako istiluak konpondu dira gazteek lokala helburu politikoekin ez erabiltzeko konpromezua hartzean.

inlingua
hizkuntzak

INGELES, ALEMANIERA,
FRANTSESA ETA ARABIERA
Matrikula zabalik
Jatorrizko irakasleak
Maila guztiak

J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72
BEASAIN
Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37
ORDIZIA
Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23
ZUMARRAGA

GARAI BERRIETARA EGOKITU DIRA "ELOSEGI-ARACO" ARDOTEGIAK

Joxe Mari Elozegi: "Jendeak ardo hobeak edatera jo du"

Joxe Mari Elozegi praktika haundiko gizona dugu ardo- kontuetan. Bere semea den Mikelek, atzetik zerbait baduela, eta enologia ikasi du Logroñon eta Bordelen. Izan ere, sanitategoek derrigorrezko kontrolak jartzen dituzte eta ardoak zaindu egin behar dira. Horretarako dago tekniko gisa Mikel, aitaren ustez "aho ona" daukana. Hona hemen bi adituokin izandako elkarrizketa laburtua.

Ardoaren beherakada, ez beherapena

Diotenez, azken 6-7 urteotan %10a joan da erortzen ardo korrientearen kontsumoa: pertsonako eta urteko 70 litroetatik 30era jeitsi gara 10 urtetan. Errioxa arabarreko ardoen kontsumoa goraka doa halere. "Ardo-kontsumoa jeisten joan da. Ia ez da lehen bezala txikiteatzen, ez dago apenas txikitero koadrilarik. Jendeak ardo hobeak edatera jo du, hori bai, gutxiago. Korrientea jeitsi den proportzioan ez da igo berezien kontsumoa, hala ere". Orain iristen diren lekuetara iritsi balira orain 15-20 urte, 5 aldiz gehiago salduko zuketean. "82.aren inguruan saldu zen gehientsuen. Hortik aurrera beheraka etorri da".


Ardo berezien kulturen sartzen ari gara piskanaka: "Jendeak, orain marka askoren izenak dakizki, ezagumen handiagoa dauka, hori zerbaitegatik da, probatzen dituztelako. Ikusten da,



gazteak, 25 urtetik gorakoak, ardoa edaten hasten bada bereziari tirako diola; ardo gorriarekin hasiko dira, beltzera pasatzeko. Hemen, txikiteorako eta baita bazkaltzeko, Errioxako ardoa bezalakorik ez dago", diote aita-semeek ahobatez. Asko saltzen den "kalimotxoaren" kultura gazteagoeztzat geratzen da, orduan. Hain zuzen, kalimotxoa ere komertzialtzen du Elozegik, Coca-Colarekin komenioa baitu. Baina, ardotan ez dagoen bezalaxe, hor ere ez dago inolako tranparik bere esanetan, ardoa ez da Errioxa, hori ez, baina ez da hautsez egiten.

Onak eta hobeak

Honekin lotuta, ardoen elaborazioaz



aritu gara. "SO₂ kontserbantea erromatarren garaietatik dator, ardoaren elaborazioan derrigorrezkoa da". Mota honetako edari guztiek dute. Bere neurriak arauturik daude eta muestren bila etortzen dira sanitategoak, korrientearen muestrei gehiago begiratzeko dietelarik. Beharko gauzak kondiziotan euki! Ardo berezia, berriz, ez dago pasteurizatzerik, bere ezaugarri guztiak galduko lituzkeelako.

Ardo ona sortzeko formularik ba ote den galdetu diegu. Lur aproposa, lur-sailen hegoalderako kokagune egokia. "Mahats ona euki behar da eta gero garbitasuna. Ez dago besterik, mahats txarrekin ez dago ardo onik egiterik. Baita, bi metodu daude: bata edo bes-

Publizitate modulo hau

6.000 pzta. kostako zaizu

10 edo gehiagotan eginda **5.000 pzta.**

GOIERRITARRA



88 96 12

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa
Tfona: 88 21 49 BEASAIN

tea har dezakezu eta hartutakoaren prozesua segi". Segun eta zer urte, izandako eguraldiaren eta jasotako uz-taren arabera ardoak daude. "Tempranillo" izeneko mahats beltza da Arabako Errioxako gehiengoa, "viura" eta "garnacha" ere landatzen direla. Ongarri kimikorik ez da erabiltzen eta ureztapena debekaturik dago. Ardoa ez pikatzeko anti fermentuak pasteurizazioarekin bukatu ziren. "Nekazari-ek oso ondo ezagutzen dituzte euren mahastiak eta guk egiten duguna da ikusi nota datorren mahats hori, ona

eta txarragoa bereizten ditugu deposi-tu ezberdinetan. Errioxa ardota hiru mota dauzkagu, denak onak, baina ba-tzuk besteak baino hobeak. Aparte pro-batu ezkerro, akaso jendeak ez lioke an-tzemango". Baina hiruak batera proba-tuta antzematen zaio.

Errioxa arabarrak duen berezitasuna zertan datzan?: "Kosetxeroen ardoan mahats guztia botatzen da, bere zutza eta guzti, depositu barrura. Horrek eragiten dio urteko ardoari beste kar-bonikoaren grazia eukitzea, horrek ematen dio berdetasun hori. Egur za-

pore hori. Tradiziozko krianzako ar-doak egiteko, berriz, mahatsa bakarrik botatzen da eta barriketan aurrena eta botilan ondoren, ondu arte itxaron beharko du. Zenbait kasutan aurkitu izan dugun "haritz" zapora kimiko ho-ri ez da kosetxeroen gauza: ardo txarra izan eta azkar "hobetu" nahiean "ro-blina" bota zaiona baizik, segituan na-baritzen dena", Elosegitarren esane-tan. Hori geroz eta gutxiago ikusten dela hemen diote eta gaitzerdi.

 Mikel Aramendi

Lan asko eginda

Oraingo "Elosegi-Araco S.L." ar-dotegiak historia luze dakar: gaurko nagusi diren Joxe Mari eta Joxe Ma-nuel lehengusuen aitona Joxe Antonio Elosegi gabiriarra hasi zen ardogin-tzan Gabiria eta Ormaiztegin. Bertako alondigan lekuri ez zela- edo, eta Beasaingo kalera jeitsi zen, geltoki parean-edo negozioa jarritz. Beasainen enbarazo-gunean zeudela (karga-deskargakoetan kaltea besterik ez zu-tela) eta inbertsio galanta eginez alda-tu ziren duela 3 urte Olaberriako in-dustrialdera, euskal baserri-itxura duen pabilioira. Orduantxe etorri zi-tzairen "Araco" Errioxa Arabarreko

kosetxeroen kooperatiban sartzeko proposamena Jaurilaritzatik. Sartu zi-ren sozio eta, beraz, ez dira ardo-ba-natzaile soilak, mahastiak ere badituz-te Biasteriko nekazariekin batera: 200 bat hektarea, milioi bat kilo mahats.

140.000 bat enboteilatzen dituzte hilean, beltz, gorri eta txuri korrien-tetik. Iaz, 30.000 Añares eta Otoñal saldu ziren Olarra ardotegietatik eka-rrita. Enpresa ia familiarra da eta 7 langile eta nagusien artean ateratzen dute aurrera. 5 autonomok Nafarroa-tik, Mantxatik eta Jumillatik ere laister batean karreatzen dute ardoa. Errioxa-ko ardoa, 10.000 kaja erosten hasi eta 60.000 pasa dakartzate egun. Goierri osoa eta Zumarraga-Legazpi dute ere-mutzat, baina Gipuzkoa osoan dituzte

banatzaileak; Iparraldera ardo dextente bidaltzen dute eta Alemania eta Erru-siraino ere iritsi dira...

"Pezeta bat baldin bada ere, gaine-ratzeko eta ez kentzeko izan dadila", dio Joxe Marik, aurrerapausuak ema-tearen zale. Ardoaren kontsumoa jeitsi arren, Elosegi zabaltzen eta beste pro-dukto batzu banatzen joan da, etxea eustez gerotan. Beasaingo "Odolkia-ren Kofradia"ren inguruko saria urte dextentetan irabaziak, "sariak han ge-ratzen dira baina ardoak aldatuz doaz. Ahal dela gure ardoaren kalitatea mantentzera goaz: ez gaur oso ona, eta bihar txarra". Semeen seme eta bi-lobek jarraitzen dute Goierriko ardo-partitzaile indartsuenaren lekukoare-kin.

LEIZEA



TABERNA

ORDIZIA

AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

GOIERRITARRA



88 96 12



POTTO ENE

Pintxoak
Ogitartekoak
Bazkariak
Afariak

880035

ORDIZIA



GENERALI

Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

ZALDIBIA

Baserriko lanabesen erakusketa etnografikoa

Aranzadi Zientzi Elkarteko Fermin Leizaolaren gidaritzapean eta Gipuzkoako Diputazioa eta Zaldibiko Udaren laguntzaz, baserri eta artzantzako lanabesei dedikaturiko erakusketa etnografikoa dago irekirik gure herrian, otsailaren 6tik martxoaren 6ra bitarte. "Resti" pilotalekuan aurkitzen da ikusgai, desio duten guztientzat, goizeko 10etatik gaueko 9ak arte, asteke egun guztietan, igandeak barne. Erakusketa garrantzitsu hau dela eta, Fermin eta beste arduradun batzuekin luze bezain zabal mintzatzeko aukera izan dugu. Haiei ostutako hitzak dira "GOIERRITARRA" honetara gaur dakarzkizuegunak.


Leizaolaren hitzetan, "etnografia, giza talde batek (kasu honetan, Euskal Herria osatzen dugun giza taldeak) bu-

ko. Gaurko bizimodua lehengoarekin etenik gabe lotzea du helburu erakusketak; izan ere, hizkuntzarekin batera, etnografiak berebiziko inportantzia du talde etniko bat definitzeko garaian".

Tresnen bilketa egiteko "Lardizabal" Herri Eskolarekin jarri ziren harremanetan. Eskolumeak ibili dira baserriz baserri, bakoitzean zer dagoen galdezka, eta ondoren Arantzadikoak joan dira, herriko gida batzuekin, pieza horiek erakusketara ekartzeko eskea eta moduak egin ditzaten. Gure kasuan, Aranzadiko Leizaola, Antonio Lejarza eta Jesus Mari Gomezekin batera, enlaze lanetan Salvador Garmendia, Antonio Etxeberria eta Felipe Sukia aritu dira. Erakusketa egiteaz gain, inportantea da baserrietan dagoen tresneria osoa inbentariatzea, eta, aldi berean, baserriarrak ohar zaitezela "tresna zaharrak" ez dituztela hori eta horrenbestez bota edo eman behar.

Baserriko tresnak museora sartzeak baserriaren heriotza ez ote duen esan nahi galdetu diegunean, Leizaolaren erantzuna

zorrotza izan da: "Baserriak aurrera jarraitu behar du, baina teknologia berriarekin. Baserria emankorrako bihurtu behar da produkzio-sistemak hobetuz; aurrera segitu, oinarri edo sustraian erabateko etenik sortu gabe, nahi bada, baina tresna hauek jadanik historia dira". Beraz, logikoa zen baserriak eta artzantzak aurrepiderik egin ote duen galdetzea, eta horretan ere tinko erantzun zigun Ferminen: "Esate baterako, artzantzan, neolitikotik orain dela




30 urtera arte baino aldaketa gehiago izan da azken 30 urteotan: ardiei hazia jartzeko era, umaldi gehiago, elikadura, gazta egiteko sistema, ontziak, metodo berriak, argi-indarra, sua, higienearauak, gaztaren jatorri izena lortzeko homologazioak...".

Esan bezala, hilabete iraungo du Zaldibiko erakusketa honek. Begiratu batera, tarte luze samarra dirudi, baina, ondo pentsatzen jarrita, horrenbeste behar da. Esposizioa muntatzeko egin behar izan den esfortzua ikaragarria da: tresnak bildu, garbitu, fitxatu, katalogatu, eraman-ekarriak... Esfortzu horri etekina aterako bazaio, hilabete bat behar da gutxienez. Gainera, herritarrek eta kanpo herrikoek, denek ikusi behar dute. Inguruko eskoletakoek ere bai.

Iluntzeko zazpiak ari zuten elizako kanpandorrean, kalean inor askorik ez zebilen iluntze hartan. Karpeta eskuan, txapela buruan, bibote handia sudurren gerizpean, korbata lepoan, betiko modu berean zihoan Fermin Zaldibiko kale bakar eta bakartian barrena kotxe aldera, egun luzeetan handik pasako zen artzain bakarrarekin topo egin zuenean. Hantxe utzi nituen tertulian, Santa Fe kaleko lehen bihurguneak nire begiei argazkia eskuetatik ostu zien arte.

 Rufino Iraola Garmendia



rutzen duen iharduera osoa deskribatzen duen zientzia da, hala nola: erabiltzen dituen lanabes, antolaketa, produzio sistemak, materialeak, garrarioak, transmisio moduak... Kasu honetan baserri eta artzantzan erabili ohi ziren tresna ugari dira, guztira 1.100 piezatik gora, dela: gurdi, lera, malatz, laia, hainbat saski klase, txurka, hazi ereiteko tresna... Andoainen antolatu genuen lehenengoa, Tolosatik banandu zela 375. urteurrena ospatze-

Inozentzio Oleari omenaldia

Inozentzio Olea Zeraingo Mendarte baserrian jaio zen orain dela 72 urte. Berak aitortzen duenez bere familian bertso giro aparta zen, bertso artean hazi eta bertso zaletasuna batere ohartu gabe sortu omen zitzaion. Lehenengo pausuak Zeraingo Plazan kantatuz eman zituen, baino berak esaten duenez, berehala antzeman zion bere buxuari ez zela plaza- gizona eta bertso munduari zion maitasunak bertso jarriak lantzera bultzatu zuen. Horrela jarraitu gu gaur egunerarte.

Bertso bizitza oparoan besteak beste Xenpelar saria eskuratu zuen; bi bertso-liburu argitaratu ditu, hain zuzen "Goierriko Lorak" eta "Otemotzeko Arnasa" izenekoak. Bestalde zenbait jaialditan gai-jartzaile izan da eta pro-

san ere idazten jarraitzen du egunkarian eta Zeraingo Urtekarian ere laguntzaile estimagarria dugu. Ez zen gaur goizeko asmoa Oleari omenaldi bat eskaintzea Zerainen eta hori joan den urtarrilaren 15ean eratu zen. Aurtengo Bertsolari Egunean beste 8 bertso-jartzailerekin batera omendu zuen Bertsolari Elkartek eta Kultur Etxekook pentsatu genuen horixe zela une aparta Zerainen zerbait antolatzeko, Inozentzio ardatz zela.

Omenaldi hau bertso jarrien emenaldi batekin ospatu zen, Amuriza, Egaña, Etxaluze, Euzkitze, Lazkano eta Lopategik bere bertsoak kantatu zituztelarik. Nahiz eta esperientzia berri bat jorratzen hasi (bertso jarriak baitziren kantatutako denak), jendeak

oso ondo erantzun zuen eta omenaldi berro bat eskaini zitzaion Oleari. Jaialdi ondorenean Kultur

Etxeak eta Udalak bere opariak luzatu zitzioten eta Inozentzioren eskerrarekin eman zitzaion bukaera ekitaldiari. Berak adierazi zuen bezala, Zerainek ez ditu bere semeak ahazten.



Andoni Alustiza

SEGURA

Ur gorabeherak

Ez dira ez makalak Segurak urarekin izan dituen arazoak. Makina batek gogoratuko du oraindik baldeak hartu eta herriko 3-4 iturrietatik urkarrean ibiltzea zer zen. Eguneroko lana zen hori, batez ere uda partean. Harritzekoa da txingalari hoberik sortu ez izana Seguran. Kontu haietaz badira 20ren bat urte. Garai hartan Elortza eta Maiñeko iturburuetatik ekartzen zen eta kalitate oneko urak ez izateaz gain, uda partean lehortu egiten ziren.

Arazoari Mutiloako Troiako iturburuko urekin eman zitzaion aterabidea. Suziriak ere izan ziren orduan. Ur honek kalitate hobearen zuen, nahiz eta burni eta kare maila altuak izan eta urte guztirako ura garantizatua zegoen. Urte batzu beranduago ordea, Troian bertan Exminesa mehatagia jarri zen martxan. Exminesak ura garantizatu behar zion Segurari, horrela gertatuko ez balitz indemnitazio bat eman beharko ziolarik. Denbora pasa ahala arazoak handituz doaz. Kanalizazio txarrak eta mehategiak berak eragindako ur moz-



Troiako iturburutik ura hartzen hasi zeneko argazkia.

ketak ugaltzen hasten dira. Egoera honetan, eta epe luzera Arriarango presa ikusten zen aterabide bakarra.

Exminesak ordainketa etena egitearekin batera bertako galeriak erortzen hasi zirenean, ez dakigu berez edo eraginda, arazoak topea jo zuen. Erorketek ur kanalizazioak eta instalakuntza elektrikoak kalte-tu dituzte eta Troiako iturburutik ez da ur tanta bat ere iristen herrira. Inola ere aurrirakusten ez zen egoera honetan dago gaur Segura, beraz. Arriarango ura ez da espero uda alderarte, nahiz eta kanalizazioak eta herrian ura banatuko duen depositua egi-

nak egon. Bitarte horretarako konponbidea, Zerainek eta Mutiloak beren ura hartzen duten eta Zerainen kokatua dagoen Lasurtegi potzua da. Bi herrion baime-narekin, uda arteko behin behineko aterabidea izango da. Baina kanalizazioa egin egon arren, egun batzu beharko dira martxan jartzeko. Bitartean, Mutiloako Murgiondo errekatxoko ura da Segura hornitzen ari dena. Gaue-tan ur mozketak eragiten dira, egunean zehar ziurtatzearren.

Aipatu, Segurako herriak Exminesarekin zuen hitzarmena dela eta, gaur egun ordainketak etenda dagoen enpresa honek 54 milioietako indemnitazioa eman beharko diola, eta hori gauzatzeko herriak bere bideak jorratuko dituela. Bestalde, Udaletxeko arduradunek pazientzia piska bat eskatzen diete herritarrei, egoera behingoz bideratu arte. Bariedadean omen dago gustoa. Ur probaketan behintzat ez gara atzera geldituko.

Joseba Telleria

Eskolaumeen ikustaldiak

Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz, inguruko herrietako eskolaumeek zenbait ikustaldi egingo dituzte datozen hilabeteetan zehar Gabiriako 4 baserrietara. Baserriak honako hauek dira: Altzibar baserria, bertan Josetxo Atinek landareak bereizten eta hauen ezaugarriak erakutsiko dizkie; Artiasarain baserria, hemen Juanito Elgarrestak abarkak nola egiten diren eta larrua nola lantzen den azalduko die. Baztarrika baserria, Amelia Jauregik ardi-gazta egiteko burutu beharreko prozesu guztia azalduko die eta azkenik Igeribar-Errota, hemen Jose Kruzek errotaren iharduera osoa azalduko dielarik, artalea edo gari-alea irinduz.



Josetxo Atin landare artean lanean

Bertso-ikastaroa Osinalden

Otsailaren 9an hasita, bertso-ikastaroa antolatu da Osinalde Elkartean gai honen inguruan interesa izan dezaketenguztientzat. Ikastaro hau otsailaren eta martxoaren zehar izango da, hain zuzen ere, asteazkenetan 20,30etan hasi eta ordubete inguruz. Ikastaro honetan bertsoaren teknika, errima, doinua eta era guztietako neurriak landuko dira. Eusebio Igartzabal eta Iñaki Murua bertsolariak emango dute eta helburuetako bat, lehen aipatutakoez gain, herriko zenbait lagun bertsolariak gaiak jartzen prestatzea izango litzateke. Honela, azken bi saioak gai-jartzeari dagozkionak izango dira.

 Gabino Murua

ORMAIZTEGI

Sinadura bilketa bati buruz

Estantokoko etxe berriaren parean, kaminoaz erreka aldera hutsik dagoen lursailarekin sortu da eztabaida. Aurreko arau subsidiarioen arabera lursail horretan berdegune bat egin behar zen. Baina oraingoetarako (Udaleko talde guztien oniritzia jaso badute ere oraindik aldatketak egin daitezke) 6 bizitzako etxe bat proposatu da. Lursail horren inguruan bizi diren zenbait herritar ez daude proiektu horrekin ados: leku gutxi dagoela hor etxea egiteko, ingurukoei argia eta bista nabarmen jango liekeela, Ormaiztegin etxeak "pilatu" beharrik ez

dagoela eta herri erdian berdegune bat ondo etorriko litzatekeela... horrelako arrazoiak ematen dira.

Desadostasun hori adierazi nahian inguruko etxeetan sinadurak biltzen hasi dira. Aipatutako lursail hori berdegunetarako uztea eta etxea beste nonbait egitea eskatzen da. Auzia, dena den, zabalagoa da, eta Gabirirako bidegurutzetik hasi eta Berjaldegiko etxeetaraino, kaminoan eta Estanda ibaiaren artean dagoen sail handi hori nola banatu dago jokoan. Tarte horretan etxebizitza kopuru jakin bat eta aisiarako

gune bat sartu nahi lirateke, eta Udalaren asmoa zera zen: Estantokoko parean etxea egin eta Etxeberri-Azpiko zubira artekoa aisiarako gunearentzat utzi. Hor etxea ez egiteak plan guztian izango luke eragina. Horrelakoetan ohi bezala, eztabaidak eta iritziz desberdinak ez dira faltako. Geroak esango du gauzak zertan geratzen diren.

 Iñaki Amundarain

KEMEN KIROLAK



Zamalarregi, I
Tfno: 88 51 68
ORMAIZTEGI

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

Lazkao-Txiki gogoan Esparru elkartean

Abenduaren 30ean, San Silbestre bezperan beraz, Esparru Elkartean bertako bazkide zen eta apirilean hil zen Joxe Miel Iztueta "Lazkao-Txiki"ren omenez, ekitaldi xume eta bero bat ospatu zen. Angel Mari Peñagarikano bertsolariak prestatutako bertso bat egurrean landu eta



Lazkao-Txiki beraren argazkia jarri zituzten, dotore, Elkarteko horma batean. Gazte batek, txistu hotsean, aurrekua dantzatu eta Kaxiano, Lizartzako itsuak, Lazkao-Txikiri eskeinitako abestia abestu zuen, esku-soinua lagun zuela.

Andres Barandiaranek Angel M. Peñagarikanok prestatutako bi bertsoak kantatu zituen eta ondoren Lazkao-Txikik hain gustoko zuen eran, afari batekin, eman zitzaion festari jarraipena. Getariko txakoliñaz betetako barrikatxo bat han izan zuten, txotxetik edan eta egarria asetzeko. 55 lagun bildu ziren eta afal ondoren bertso, abesti, txiste eta konturik ez omen zen falta izan, ezta dantzarik ere!

Esparru Elkartean beti present izango dugu Lazkao-Txiki. Geroarte beraz, lagun handi horri.

Inork zertxobait esaten bazun azkar asko erantzunez, nor ez harritu hizketarako zenuen argitasunez. Kantatu ere kantatzen zenun arrazoi eta zentzunez; guk hemen zenbat gozatzen genun Joxe Mieli entzunez!

Txoriak zutaz oroitzen dira egunsentia heltzean, baita gu ere haien kantua heltzen zaigun bakoitzean; aulki bat hutsik egonda ere Elkarteko mahai ertzean, beti Esparrun izango zera bazkideon bihotzean.

Sagardoa txotxetik

Urteroko ohitura errespetatuz, aurtien ere jendeak gogoz edan du sagardoa txotxetik hiru Elkartetan. Urtarrilaren 14ean, ostirala, Gerriko Elkartean 70 bat lagun bildu ziren eta Hernaniko Alberro sagardotegiko sagardoa edanez afari ederra egin zuten. Berdin hurrengo ostiralean Domarda Elkartean 110 bat lagunek ere; hurrengokoa berriz, urtarrilaren 28an, Esparru Elkartean 105 bat inguruk, Altzueta sagardotegiko sagardoa dastatu zuten. Majo jan eta edan ondoren kontuan, kantuan eta jokuan, giro eder askoan pasa ditu makina bat lazkaotarrek urtarrileko ostiralak.

Garbi dago saiatzen garela kultur mailan ekintzak eta mugimendua sortzen. Ezer ez dago soberan eta egindako guztia gutxi da, baina nahi duenak aurkituko du non ikasi, non irakatsi eta non goza!

Iturgaitzagako lanak

Telefono, ur eta argikuntza sareak berritu eta lurrazpitik pasatzen ari dira. Suteetako ur-zuloak prestatu, etxe-atari eta sarrerak txukundu eta



beharren arabera moldatuko dituzte. Mojen baratza eta kalea mugatzen dituen orma baxutzeaz gain, orain arte ormaz barrutik zegoen lur sail txiki bat kanpotik geratuko da. Bertan lorategi txukun bat prestatu eta inguru hori estetikoki dotoretzeaz gain, ibilgailuentzat ere mesede, bigurutzeko zabaldu eta argitzen bait du.

Guzti honetarako aurrekontua 21 milioitakoa da. Baina ez dira hor bukatzen auzo honetako lanak. Geroz eta auto gehiago dauzkagu kaleetan eta non utzia bilatzen lanak! Behar hori ase edo nolabait asetzen laguntzeko, aparkalekuak egingo dira Iturgaitzagan. Udalak 20 urteetarako alokatu die aparkalekuak egiteko lur-saila beren jabeai, 1.465m² guttira. Bertan, 54 auto aparkatzeko lekua prestatuko da. 10 mililoiko aurrekontua eta lanak bukatzek epea bi hilabetetara mugatu dute.

*Mari Joxe Madariaga
Argider Mujika*

LOINATZKO San Martin Jaiak di-
rela eta urtero ospatu ohi den odolki
dastatzen lehiaketan, Joxe Mujika Idia-
zabalgo harakina suertatu da irabazle.
Bere sariak izan ditu, baina hori bai,
otsailaren 5ean ospatu zen bazkarira
joan ziren guztientzat nahiko odolki
prestatzeko konpromezua zuen iraba-
zleak. Bareak Elkartek bultzatutako
odolki probaketan, besteak beste, Kar-
los Argiñano sukaldari ezaguna egon
zen epaimahaiaren lana zuzentzen.
Lehiaketan parte hartu zuten inguruko
15 harakinetatik, azkenean "Izalgoa"
izendatu dute, beraz, Beasaingo odol-
kien errege.

BEASAINGO Udal Antzerki taile-
rra dugu berri orain. Iazko azaro ingu-
ruan jarri zen martxan, ikasturte osoko
iraupena duen antzerki tailer hau, eta
dagoeneko, antzezlan bat muntatzen
ere hasiak dira. Arazo batekin aurkitu
dira ordea lan hau aurrera ateratzeko
momentuan, alegia, jende gehiagoren
beharrean aurkitzen direla antzezlan-
a egin ahal izateko. Beraz, antzerki mun-
duan interesaturik dauden gazte eta ez
hain gazte ez diren guztiei dei egiten
die, proiektuan parte har dezaten ani-
matuz. Ezeren gainerik, ongi pasatzea
omen du helburu antzerki talde honek.
Beraz, lotsak alde batera utzi eta ahal
bezain aguro eman zuen izena Udaleko
Kultur Sailera deituz. Tfna.: 885051.
Klaseak astearte eta asteazkenetan iza-



Ibisate, Argiñano, Mujika eta Arriola, odolki sari-banaketan

Argazkia: Fotoetxe

ten dira, iluntzeko 7etatik 9etara.

"**INGURATZEN** zaituen artea"
izenpean, hitzaldi batzu burutu berri
dira, Arte Ederretan Lizentziatua den
Fernando Botanzen eskutik. Arkitek-
tura, eskultura eta pintura izan dira
mintzagai, otsailean zehar asteazke-
neko Loinazpe Ikastetxean. Parrokia
ere bisitatu zuten, eraikuntza honen ar-
teari buruzko berri gehiago ezagutu as-
moz. Kultur Batzordea eta Emakume
eta Hezkuntz Ordezkaritza izan dira
egitasmoa aurrera atera dutenak.

KULTUR Etxeko Udal Liburutegia
Gipuzkoako beste 8 liburutegien artean

aukeratua izan da, E.J.-ko Liburute-
gien Informatizazio Programan sar-
tzeke. Laster martxan jarriko den egi-
tasmoarekin, jendearen kontsultak
pantailan egitea ahalbideratukoda.
Bukatzeke, maiatzaren 13tik 22ra bi-
tarte ospatuko dira aurten Loinatz
Jaiak, eta hau antolatu asmoz, otsaila
amaiera aldera hasiko dira bilerak egi-
ten. Antolakuntzan parte hartu nahi
duen edonor azal daiteke bileretara,
aurrez Kultur Sailarekin harremanetan
jarritz.

Nekane Altuna

*Zure abisu eta oharrak
eskertuko ditugu.*

*Norbaitek artikulua edo erre-
portaiena bat idatzi nahi badu, be-
re herriko kronikatxoa, iritziren
bat eman edo salaketaren bat
egin, lagundu nahi baligu era ba-
tera edo bestera, gure helbidera
bidali edo gurekin harremanetan
jartzea besterik ez du.*

GOIERRITARRA, 124 p. k.
ORDIZIA Tfonoa: 88 96 12

ARROTEGIAK

— B —

ELOSEGI

— D —

E


— G —

ARACO

— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 **OLABERRIA** (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)



Gero eta gutxiago: 1.654 biztanle

Gaur egun 1654 biztanle ditu Atau-
nek, aurtengo urtarilaren lari dago-
kionez. Hirurogeigarren hamarkadaz
geroztik etengabea izan da biztanle ko-
puruaren jetsiera, eta azken bost urtee-
tan adibidez, 30naka gutxitzen doa ur-
teroko udal-errola. Iazko datuei buruz
berriz, zera: 34ean gutxitu da biztan-
legotza, 17 izan dira hildakoak, 10
jaiotakoak eta gizonezko-emakumez-
ko kopuru aldeak bere horretan segi-
tzen du gizonezkoen alde, 841 direlarik
hauek eta 813 emakumezkoak. Goierri
bailaran, 5. herririk haundiena da
Ataun biztanle kopuruari dagokionez,
Beasain, Ordizia, Lazkao eta Idiazaba-
len ondoren.

Guztion amandrea hil

Hilabete honetan, San Blas egunean
hil zen Maria Eskisabel Auzmendi
andrea. Joan zen mendean jaioa, 98 urte
zituela utzi gintuen azkeneko urteetan
ataundarrik zaharrena zen heinean,
guztion "amandrea" izatea tokatu zi-
tzaionak. Aitzarteko Ertzilllegi base-
rrian jaio eta Aitzarte bereko Aitziora

ezkondu zen Maria-
ren azken urtetako
ohore horren leku-
koa, baita ere Aitzar-
tekoa den Aralegi
Berriko Manuela Su-
kia Amundarain an-
dreak hartuko du.
Bera da orain, 95 ur-
tekin, ataundar guz-
tiontzat bera den
amandrea.

Jolastokiak

Garai baten erro-
tarako ura biltzen zen
gunean, San Martin-
go plaza ondoan da-
goen Aldaparon,
umeentzako parke bat egokituko da
aurki, urbanizazio oso baten lehenengo
fasea izango den honetan. Eskola eta
kiroldegia arteko tartea berriz,
egurrezko tresnez osatutako jolastoki
bat bihurtuko da.

Bestalde, eskola ondoan arbol be-
rriak aldatuko dira. Lehen zeudenak



Maria Eskisabel, 98 urtekin hil da.

galdu ondoren, sei izango dira orain,
guztiak ere desberdinak, dagoeneko bi
metrotik gora hazita dauden arbola be-
rri hauek.

 Joxe Begiristain

LEGORRETA

Pulit-zer?: Argazki Elkarteak

Argazkilaritzaren mundua gehiago
ezagutu eta bultzatzeko asmoarekin
sortu zen "Pulit-zer" argazki elkarteak,
azken urte hauetan argazkilaritzari bu-
ruz izandako ikastaroak direla medio.
Gaur egun, herriko kultur ihardueretan
argazkilaritzak bere lekua izan behar
duela erreibindikatzen du 11 lagunek
osatutako elkarteak. Independentea eta
irekia izanik, elkartearen lehendakaria
den Joxe Mari Lasaren esanetan, edo-
zein izan daiteke bertako bazkide.

Udalak utzitako Kultur Etxeko gela
bat dute beraien egoitza eta lantoki,
aurrerantzean beste leku batetara joa-
teko asmoa badute ere. Bazkideen ar-
tean jarritako sarrera moduko diru ba-
tekin, gela ilundu eta beharrezko tres-
nak jarriaz hornitu dute. Egun batean

batzuk eta beste batean beste batzuk
erabiliak, ondo moldatzen direla dio
Joxe Marik. Aurtengorako beraien gogo



ZER?

eta asmoak honako bi ekintzetan bana-
tuko genituzke: bata, eraikuntza handi-
ren baten bitarteko lanetan eginiko ar-
gazki ezberdinez osaturikoa; bestea, ar-
gazki-erreportai batekoa izango litza-
teke, herriko festak eta gabonak adibide
gisa jarriaz.

"Pulit-zer" elkarteak eginiko lanen
artean, orain bi urte Enerio elkartearen
izaniko erakusketa, ikastaroan zehar
eginiko argazki kuriosoenak erakutsiz,
eta arrakasta dextente izan zuena. Eta
iaz, Kultur Astearen barruan izandako
martxa erregulatuan parte hartu zutene-
ko argazki erakusketa. Mendian ikusi-
tako zaborren inguruko argazkiaz, hain
zuzen. "Txitxas"i buruzko erreportai
bat ere egin zuten Udaletxearen enkar-
guz. Aurten, aurreko urtetan ez bezala,
argazki-ikastaroa elkarteak berak an-
tolatzeko asmoa du Udalaren laguntza-
rekin, bazkideek ahalden eta diru kopu-
ru txikiena jarriaz.

 Xabier Glez. Ezama

Bi lerrotan

OJokin Mujika, txirrindulari itsasondotarrak, ziklo-kros denboraldi bikaina egin du aurtengoan ere. Lehenik, urtarrilak 9an, Espainiako txapela lortu zuen. Hilaren 23an berriz, TVE Challengea irabazi zuen Santanderren, Estatuko azken karreran, bigarren geratu ondoren (lasterketa berean bere atzetik Izagirre ormaiztegiarra sartu zen). Hainbat gora beheren ondoren, lehenik ez zela selezionatua izan eta



ondoren baietz, Belgikako mundialera joan zen. Abiatu aurretik "Oso maila altuko jendea joaten da. Ezin esan dezaket guk irabazteko aukera handirik daukagunik, baina ni neroni lehen hamarretan geldituko banintz asko poz-tuko nintzateke" zioen Jokinek, Eginen egindako adierazpen batzuetan. Baina asmoak eta ilusioak gauza bat izan arren errealitatea beste bat izan zen itsasondotarrarentzat, Koskjside-ko mundialean doblatua izan bait zen. Aspaldikoak dira munduko txapeldunorde geratu zeneko kontuak.

OZiklo-krosa utzi, baino, txirrindularitzarekin jarraituz, dagoeneko hasia da, Andaluziako lurretan, aurtengo profesional mailako denboraldia. Aurtengoan hiru dira maila honetan dabiltzan txirrindulari goierritarak, hiruak ere talde ezberdinetan. Xabier Aldanondo, Beasainen bizi den segurarrak ONCE taldean jarraitzen du, Aitor Garmendia itsasondotarrak, Banesto taldean eta Javier Palacin beasaindar gaztea, Euskadi talde berrian dabil.

OIker Perez igerilari ordiziarra albiste dugu berriro, oraingo honetan Euskadiko txapeldun izan bait da, bi aldiz gainera. 100 metro eta 50 metro libreetako lasterketak irabazi ditu hain zuzen ere. Garaipenak, otsailaren 6an Iruñean ospatu ziren Euskadiko Igeriketa Txapelketetan lortu zituen.

OFutbolean, normalean, talde nagusiak izaten dira berri, baina gazteagoak ere saiatzen dira eguneroko entrenamentuetan eta partiduetan, egun batean gora iritsi ahal izateko. Oraingoan gazteago hoi en sailkapenen txanda da. Gipuzkoako gazteen ohorezko mailan, 18 ihardunaldiren ondoren, Beasain doa lehenengo 43 punturekin, Lazkao 11., 19 punturekin eta Ordizia 17., 8 punturekin. Gazteetan baina Gipuzkoako bigarren mailan (6. taldean), Segura bigarren doa 14 partidutan 29 puntu lorturik, lehenengo den Urolatik puntu bakerrera. Gaztetxoetan, ohorezko mailan Beasain azkena doa jokaturako 16etatik partidu bakarra irabazi ondoren. Gaztetxo en lehenengo mailan, 18. ihardunaldiaren ondoren, Ordizia bigarren doa 39 punturekin, lehenengo doan Urolarekin berdinduta. Gaztetxoetan baita ere, baina bigarren mailan Idiazabal doa lehenengo 44 punturekin eta Lazkao berriz 9., 16 punturekin.

OGoierriko hainbat herrietan egiten da kuadrilen arteko futbol txapelketa, arrakasta haundiarekin gainera. Hauetako bat da Lazkao II Futbol Txapelketa, 12 ihardunaldiren ondoren eta lehenengo fasea bukatzeko 3 falta direnean, honela doa sailkapena: 1. Attonak two, 24 puntu; 2. Katamotzak, 20; 3. Zakutok Itaka, 18; 4. Makalak, 18; 5. Osasuna, 15; 6. Satarratxak, 13; 7. Seapotok, 13; 8. Optika Mikel, 12; 9. Drink Team, 12; 10. Etsai Gorriak, 11; 11. Sporting de Cojon, 11; 12. Urrutizkinez, 10; 13. Batez, 5; 14. Joieria Nегueruela, 4; 15. Perdigoia, 3; 16. Bar San Jose, 2 puntu. Ondorengo faserako 8 talde sailkatuko dira eta horretarako lehia handia badago ere, txapelketan iazko txapeldunak dira nagusi. Goleatzailetan, Attonak taldeko Markox Barandiaran doa lehenengo 30 golekin, 2. Oskar Jauregi (Katamotzak) 25ekin eta 3. Gorka Jauregi (Drink Team) 20ekin. Atezain hobena berriz Zakutokeko Bugo, 27 golekin, 2. Makalakeko Aparicio, 36ekin eta 3. Attonakeko Beltza 38ekin. Beste herrietako txapelketen berri ere emateko prest dago GOIERRITARRA, antolatzaileok bidaltzea besterik ez duzue.

OPelotan, Segurako Otegi-Hombre gazte mailako bikotea, lan ederra ari da egiten, Euskadi mailako Talde-arte Txapelketan eta finale-rako sailkatzeko aukera haundia dute.

OLazkao igeritokia abendutik hasi eta martxorarte, bertan egiten ari diren berritze lanak direla eta, itxita dago. Orain berriz, Zaldibiko pilotalekuaren txanda da. Zaldibiko kronikan Rufino Iraolak azaltzen duen bezala baserriko tresnen erakusketa ari dira egiten bertan, hau dela eta pilotalekua itxita egongo da, pilotarientzat, martxoaren 7rarte. Bi herri hauetako kirolariak batera edo bestera mugitu beharrean aurkitzen dira.

Hemen eta orain

Arrastoa



Mari Karmen Odriozola ordiziarra

Mari Karmen Odriozola Ordizian jaioa da 51.ean. "Alotza" haurtzaindegiaren sortzaileetakoa, Magisteritza egin eta irakaskuntzan zenbait urte

egina da. Gaur egun Filosofia ikasten ari da Donostian. Baina ez da ezagunen horregatik, baizik eta irratiaiekiko betidanik izan duen afizioagatik baizik. Komunikazio irrikiagatik.

Duela 14 bat urte EITB martxan jarzera zihoala jakin zuenean, antolatu ziren ikastaroetan parte hartu zuen, zenbait azterketa pasa eta ikastaro trinkoak eginez ondoren. "Ser" Katean eman zituen lehen pausuak. Han bi urte eginda gero pasa zen "Euskadi Irrati"ra, asteburuko programak egitera. Orain ere bertan segitzen du bertako plaza duela 5 urte eskuratu eta gero.

Asteburuko programetatik asteburuko programetara pasa zen iaz. "Astearte gauez" "Sakonean" deritzan saioan sakoneko elkarrizketak egiten ditut, pertsonai ezagun bat hartu eta

bere alderdi profesionala eta pertsonala aztertzen saiatzen naiz astero". Horrezaz gain, larunbat eguerdian Baserriari eskeinitako saioaren ardura du. Dena den, bere lanbideko sailik gus-tokoena elkarrizketa dela aitortzen digu.

Gainontzean, goierritar petotzat du bere burua, nahiz eta Donostian lan egiteak goierriarrekiko harremana asko mugatzen dion. Esperantza galtzen den azkenekoa dela pentsatzen duen horietakoa dugu Mari Karmen eta egunen batean Ordiziari zerbait gehiago eskeiniko omen dio. Mendizale sena badu eta Goierriko mendiak eta inguruak maiz bisitatu izan ditu, bai eta Piriniotakoak ere. Eskia du benetan estimakoa. Bukatzeko, idaztea, irakurtzea eta zinea dira bere afizio handienak.

Liburutegia



"Ametsetako mutila".

Patxi Zubizarreta.

Elkar, 56 orr., 570 pzta.

Ez da gaur goizekoa liburu hau. Baina ona da, zoragarria. Ipuinguntzan azken "Baporea" lehiaketan 1. saria lortu duen eta "Habe" aldizkarian, "Egunkaria"n eta GOIERRITARRAn ere idazten duen Patxi Zubizarretarena da.

Euskal Herriko istorio zaharrak eta betiko pertsonaiak tartekatzen ditu neskaxaren ametsetan. Eta asmakizun berriagoak ere bai: 3. aproba esaterako. Egingo nuke ume ez den batek baino gehiagok ez lukeela 3. aproba hori gaindituko. Bestalde, hirian eta mendian, bietan dabil neskaxa. Eta hirian behartsuengana hurbiltzen da inolako beldu-

rrik gabe. Benetako pertsonaiak eta fikziozkoak edo mitologikoak (hauek ere benetakoak dira) elkarren ondoan azaltzen dira, eta ametsetako mutilak ijito baten antza izatea ere ez da mauka. Hau da, ipuin horretan azpimarratzen dena zera da: elementu "arrotzen" eta "bertakoen" arteko elkar bizitza. Ez da ezinezkoa elkarrekin bizitzea. Posible da.

Ezin aipatu gabe utzi marrazkiak artista handi batenak direla, Daniel Redondorenak.

 Jon Zabalegi

Modulo hau

3.000 pzta.

kostako zaizu

10 aldiz eginez gero

2.500 pzta.



BISITA ORDUAK

Larunbata: 11etatik, 14etara

16etatik, 18etara

Igandea: 11etatik, 14etara

Lanegunetan: 10,30etatik, 14,30etara, aurretik deituz.

☎ 80 17 24

BERTAKO APAIZ ZEN, "ORIXE" IDAZLEA ARAMAN IZAN ZENekoAN

Joxe Mari Aranalde: "Pena handiz atera ginen Aramatik"

Joxe Mari aski ezaguna da euskal kultur munduan, bertsojartzaile eta maisu bezala. Gazteluarra da eta 1958.ean apaiztu zen Lurdesen. Aranalde, Aramara destinatu zuten (seguraski alfabetu-kontuagatik), eta 58.eko abuztuan egin zuen lehen sarrera. Munita eta Atorrasagastiren ondoren zetorren. Bere amona zuen Nikolas Ormaetxea, "Orixe", idazle handiak arreba. Ameriketatik bueltan zen Orixe 54.ean, eta Tolosa, Lazkao eta Orexan izan zen gero. Asko estimatzen zuten elkar eta ilobak jaso zuen Aramako apaizetxean nora joanik, osasunik eta dirurik ez zuen osaba.



G-Lazkaon ezagutu zenuen osaba?

E-Bai, behin baino gehiagotan bisitan izan nintzaion. San Agustinen "Aitorkizunak"-en itzulpena bukatzen ari zen. Baina hemengo itzulpen batzuekin konparatzen hasi eta gauza batzuk falta zitzaizkiola eta bat eta beste, berriz ere berritu zituen zati batzuk. Behin gogoan daukat nola nik irakurtzen nion latinez eta hark nola diktatzen zion euskaraz Aita Patxi Aizpuru(a)ri. Lazkaon Benito Deunaren Erregela euskaratu zien eta nik uste "Amabirjinnaren Ofizio Laburra" ere baietz.

58.aren udazkenean, irailaren azkenaldian etorri zen Orixe Aramara: "Telefonoz deitu zidan Tolosatik Orixekin harremanak zituen Josinazio Urdanpilleta koajutoreak: berehala atera behar zuela Orixatik. Nahi zue-nean, egun hartan bertan libre zuela Aramako erretoretxea, etorri nahi bazuen ere". Biharamunean bertan etorri zen Ormaetxea bere gauzeekin taxian.

G- Eta zer iruditu zitzaion Arama?

E-Oso herri polita da, jende oso atse-gina, apaizarekiko harremanetan nik ez

dut uste beste herririk izan litekeenik hura baino eskurakoia-gorik. Hortaz aparte, elizan bertan ez da egongo beste parroikia bat han hainbat meza gregorianoz kantatzen zenik, garai haietan. 4-5-6 kantatzen zituzten, nirekin berri bat ikasi zuten, herri osoak kantatzen zuen. Nik aldegiterrako Bezperak euskara hutsean kantatzen genituen gregorianoarekin, Orixe euskaraturik. Oso giro atse-gina. Orixe paseatzen zuen zerbait, batez ere Mendizabal baserrialdera...

G-Aditzera dut Mendizabalen errosarioa latinez egiten zena.

E-Ez naiz harritzen. Oso elizkoiak ziren, organista Joxe Galarraga zena zen eta elizako lanak hango arriben gauza zen. Harreman handia zuen haiekin. Inoiz Altzagaraino joan zela ere badakit. Behin joan zen nirekin eta beste behin joan zen Altzagako elizara eta "Jaunaren Argia" (Sagrarioaren inguruan argi bat egon behar du piztuta beti, Jauna han dagoela adierazteko) itzalia zegoela esan zidan.

G-Orixe hezueria (gota) zeukan...

E.-Nik ezagutu nuenean gaisotasunak kiskalia zeukan, gorputz osoa hartua, kordea, ezaguera, galtzerainoko atakeak izan zituen, izugarritzko sukarrak; izerdi handitan botatzen zuen gaitza eta libratzen zen. Gizaseme ederra zen, nik bajatu antxean ezagutu nuen, ordurako gaitzak oso menderatu baitzegoen, baina galanta zen.

G- Pasarte polit bat baduzu: etxera ekarri zenituen bi bertsolari Orixeri kanta ziezaioten.

E- S. Martinetan dira festak Araman eta bietan eraman nituen bertsolariak bertara. Aurrenekoan Joxe Agirre eta Txomin Garmendia ekarri nituen. Eguraldi gaiztoa zen eta Orixe minez zen, ohean. Ez dakit nondik eta nola baina agurtzera joan ziren gizon sonatua, bina bertso kantatu zizkieten ohe-aurrean. Ez daukat ideiarik ere zer bertso kantatu zizkieten. Atsegin handiz hartu zien osabak. Esker oneko gizona zen Orixe.

Laister operatu zuten Orixe her-niatik eta poliki jarri zen, 59.ean Aramatik Añorgara, Zabalegira atera ziren arte. "Ni pena haundiz atera nintzen Aramatik, behar nindutela esaten zidaten, baina halabeharra...". Arama eta Itsasondoko arteko Bionakoei idatzi zien bereziki otoitz bat Orixe, oso begikoak baitzituen Aranaldek, jende oso xume eta maitagarria baitzen bertakoa. Baditu Joxe Mari oroipen gehiago aramarrenak, bai eta Billa-frankako Udaletxean berak aurkezpe-na egin eta Orixe hitzaldia eman zue-nekoa...

Urte mordo bat joan da ordur ge-roztik, baina bi gizonon oroimenak oraindik bizirik irauten du Goierriin.

 Jon Mikel Arano

Lardizabal zaldibiarra (1806-1855)

Frantzisko Ignazio Lardizabal Etxeberria Zaldibian jaio zen 1806ko uztailaren 5ean. Lehen ikasketak jaioterrian egin zituen; baina, artean oso gaztea zelarik, apaiz izateko asmotan, Lazkaoko Karmel-darretan (egungo Beneditarretan) ibili zen. Ondoren Burgosen jarraitu zituen ikasketa horiek eta Madrilen amaitu. Apaiz egin ondoren bere sorterrian, Zaldibian, apaiz izan zen. Oso gizon gozo eta leuna izan behar zuen: "Aiurri leun ta gozokoa genduan, edozeini on egiteko beti gertu zegoena; neurrizko ta otzan", dio Xanti Onaindiak.

1855ean Gipuzkoan zabaldu zen kolera izurriteak jota zeudenak laguntzen ari zela bera ere kutsatu eta urteko abuztuaren 20an joan zitzaigun mundu honetatik Lardizabal; hil zenean 49 urte zituen. Bere anaia Joxe Mari ere apaiz izan zen Zaldibian. Bi lan haundi utzi zizkigun F.I. Lardizabalek: lehenengoa 1855ean bertan argitaratu zen Tolosan, "Testamentu Zarreco eta Berrico Condairea". Urte horretan bertan Hernaniko Batzarre Nagusiek erabaki zuten Lardizabalen beste lan nagusia, "Gramatica Vascongada" argitaratzea. 1856 urtean argitaratu zen. Baditu beste lantxo batzuk ere. Bere heriotzak izugarrizko hutsunea ekarri zuen eta hain haundia zen berarekiko estima, Aldundiak 4.000 beiloireal eman zizkiela bere ondorengoei.

Hona segidan Lardizabalen "Testamentu Zarreco eta Berrico Condairea"ko pasartetxo bat, bere estilo eder eta gozoa dastatzeko:

"Babel-co Dorrea"

Noe-ren humeac zabalduaz cijoa-cen: eta eun urteren buruan aimbeste ascotu edo ugaritu ciran, non elcargandic aldeguin, banacatu, eta nor bere bazter jaquiñean vicitu bearrean arquitu ciran. Ordea lambide oni buru-eman baño lenago, elcarri esan cioten: Osturi bat eguin dezagun, eta uri onetan cerurañoco Dorre bat, gure icena mundua mundu dan artean gordeco duena. Lambide onetan ogeuita amar urte igaro cituzten; eta Jaincoac oyen arroqueria beeratu nayez, arteraño guciac izan zuten itzcuntza bacarra, bat batetan nastu eta batac besteari ecin adierazoz ipiñi cituen, eta lanari laga bearrean arquitu ciran; argatic uriari deitu cioten Babilonia, eta Dorreari Babel-coa, ceñac esan nai dute nasmena edo naspilla.

Dembora onetan echejaun edo familietaco buruac irurogueita amar ciran; ceintzuetatic bacoitzari bere itzcuntza bereci bestec etcequienna Jaincoac eman cien (1), eta beren arroqueriarequin beretu zuten elcar ecin adi-tua icusiric, or- emen, mundu gucira, nor bere echecoacquin, uste baño ere lenago zabaldu bearrean arquitu ci-

ran, eta oguia irabazteco bidea guciac sacabanuta, artu zuten.

Noe-c bere hume, eta ondorengoan banacatce au icusi zuen, baita ugoldea mundura eracarri zuen gaiztaqueria berriz ere guizonetan sartu zala, eta bere atzeneco urteetan min onequin vici izan zan, eta bederatzi eun, eta berrogeita amar urtecoa il zan, Jaincoa bere egunetan leyalquiro sevituta. Bere aiton Adan, eta beste Patriarca-c landu eta erabili zuten lurbazterraren jaun eta jabetzat bere seme Sem utci zuen.

* * *

(1) *Escritura santac ez digu esaten irurogueita amar itzcuntza oyec cein ciran, baño jaquiñtsuen iritcian oyetic bat gure Eusquera zan. Tubal, Noeren billoba, edo Noe-ren seme Jafet-en semea bere echecoacquin etorri zan munduaren alderdi au guizacumez betetcera, eta España-n lur eguin zue-nean, itzcuntza au emen sartu zan, eta gueroz badirau, len Erreinu gucian bezala, orain bazter menditsu oyetan baicic gordetcen ezpada ere.*

Horrelaxe pentsatzen zuten Larra-mendi, Iztuetak, eta abarrek; aurreko mendera arte oso zabaldua zegoen us-tea zen.

 Arkakusoak

TOKI-ALAI

JATETXEA

Bataio-jaunartze baz-kariak, afariak...


Tfnoa: 88 89 53
ARAMA

ARRIKUTZ TAILERRAK, C.B.

Autoen konponketa Orokorrak

PROBA-MAHAIA:

- Proba-Mahaiko Zerbitzu guztiak
- Frenoak
- Suspentsioa
- Norabide Zuzenketa
- PRE-ITV errebisioa



Nafarroa Etorbidea, 53
Tfnoa: 88 52 00 • BEASAIN


Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak
gogor diharduela euskal gizarte
eta enpresagintzaren alde. Oso
Kutxa geure-geurea dela. Euskal
Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen
al duzu gure profesionaltasun
-eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura
gehiago. Familientzat, interes han-
diagoak kontu korrontean eta ohiz-
ko libretan. Beste kutxetan baino
gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da, profesio-
naltasun garbiko bidean.




ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO



*i*txura baino
gehiago...

ANITZA

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxe: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA